

Txillardegi

Idazlea

Ibarretxe Suitzan

■ Ibarretxe Suitzan inoiz izan ote denik ere ez dakigu.

Baina *Confoederatio Helvetica* famatua Europan dago. Eta Bas-kongadetakoa aginte autonomikoa zuzentzera bide datorren *Lendacariaren* bultzatzaileak oso europazaleak omen direnez, horrelako hautagai erdaldun elebakar bati Suitzan zer gertatuko ote litzaioken jakitea, interesgarri izan daiteke. 26 kantoiek osatzen dute Suitza. Hiriburu federala Berna izanik, honi datzekion kantoia garrantzitsua da alde askotatik; eta jende-kopuruaz ere (912.000 biztanle 1980an, Jura gabeko kanto berrian), orpoz orpo darraikio handiena den Zürich-ekoari.

Berna-ko kantoiak bi eskualde berezi ditu. Bata, handiena, Biel-Bienne-tik Hegoaldekoa, alemana da (%84, 1980); Iparraldean kokatutako frankofoanoak %8 baizik ez direlarik; Jura-aldean, alegia.

1947ko irailaren 9an kantoiko izendapen arrunt bat egin zuen bertako gobernuak: Herri-Lanetarako Burutzat, Georges Moeckli izeneko teknikari bat hautatu zuen, jadanik kantoiko-kontsularia.

Moeckli jauna Jura-tarra zen; eta frankofoanoa, beraz. Hots, ustekabe gaitza kantoian: Herr Hans Tschumi izeneko alibaitari germanofoño batek, ezetsi egin zuen izendapena. Moeckli juratarrak alemanez ez omen zekiela (eta are gutxiago bertako *bern-deutsch* izeneko suitzeraz); eta kantoio elebidunak elebakar bat onartzerik ez zuela. Zehazkiago eta mingarriago: *Herri-Lan Saia*, Tschumik argitu zuenez, «garrantzitsuegia da frankofoño baten eskuetan uzteko» (!)..

Sutan jarri ziren Jura-tarrak. Noski. Ordurako ere de-xente minduta zeuden Bernako germanofoñoen *zapatketaz*. Eta izendapenaren kontrako eraso huraxe izan zen *falta zena*.

Moeckli-ren aldeko helegite bat prestatu zuten juratar frankofoñoek; baina galdu egin zuten. Alemanez guttiz ongi jakitea beharrezkotzat jo zuen kantoiko agintek. Eta Moeckli elebakarrak bere lanpostua galdu zuen.

Areago: autore batzuek diotenez (Bäumlin, Henecka) Moeckli *elebidun xamarra* baitzen...

Argitzapen bat orain, aurrera segi baino lehenago: Tschumi alibaitaria suitzarrak zela, are kantoiko eskualde alemanekoa ere: Thun eta Brienz laku ederren artean koka-

Hemen, badugu orain geure *affaire Ibarretxe* partikularra. Baina gurean, Suitzakoaz bestaldera goaz. Hemen euskaraz ez dakien elebakarra dator indarrean, irmo, harro, lotsarik batere gabe, apezpikuek eta arartekoek bultzaturik

turik dagoen Interlaken hirikoa, zehazkiago.

Moeckli-ren ezesprenak Jura eskualdean sortu zuen amorruak eraginik, mogimendu politiko berri bat sortu zen: *Rassemblement Jurassien* delakoa. Eta honen helburua argi eta garbi plazaratu zuen: Berna-ko kantoia puskatu, eta Iparraldeko juratarrak batuz (65.000 lagun), Jura kantoio frankofoñoa sortzea.

1950ean, *peuple jurassien* delakoa bazegoala aitortu zuen Bernak lehengo aldiz; eta frankofoñoa eta germanofoñoen arteko berdintasuna agindu. Berandu: berezi-beharraren hazia ereina zen.

1959an halako aurre-bozketa bat antolatu zen Juran, kantoio berri bat sortzeari buruz. Eta Juratar separatistek galdu egin zuten: bai Suitzan (bere osan), eta bai Juran bertan. 1962an borroka harmatuari ekin zion FLJ delakoa (=Front de Libération du Jura); jendarne batzuk garbituz, eta abar.

1965ean amore eman zuen Gobernu Federalak; eta bigarren bozketa bat antolatzea agindu zuen. Nork izango zuen boioa emateko eskubiderik? Nork ez? Nork du AD prozesu batean bozkatzeko eskubiderik? Eztabaida juridiko mamitsuak gertatu ziren hamar urtez.

Azkenean 1974-1975 urteetan barrena hiru AD-bozketan egin ziren. Eta hauen ondorioz, 1974ko ekainaren 23an, Jura izenaz Suitzako 26. kantoia sortu zen. Erabat frankofoñoa, eta Bernatik at erabat.

Hori guztia, Europan gertatu zen orain dela 25 urte; baina ez digute kondatu. Eta Suitzan erabakiorra izan zen *affaire Moeckli* hura, oso gutxiak ezagutzen dute; are aber-tzale eta euskaltzaleon artean ere.

Hemen, ordea badugu orain geure *affaire Ibarretxe* partikularra. Baina gurean, Suitzakoaz bestaldera goaz. Hemen euskaraz ez dakien elebakarra dator indarrean, irmo, harro, lotsarik batere gabe, apezpikuek eta arartekoek bultzaturik, eta bedekiazio guztiez horniturik. Hemen gu gaude umezurtz, euskaldunok, abertzaleok.

Hemen ez da kantoio puskatuko, ezta AD bozketarik egingo. Hemen, trikorniodunak ongi esan zuenez: «no *pa-sa nada*». Baina guk ez dugu Lendacaria onartzen, eta ez onartuko.

Nahiz hau, gero eta nabarmenkiago, Europa ez izan. Nahiz hau Galherriko Kondelantia izan. ■

Maixux Rekalde



Une kezkarriak Ipar Irlandan

Bost hilabete daramate Ipar Irlandako alderdi politikoek elkarrizketan eta, une honetan, Sinn Fein alderdia mahaitik kanporatzeko zorian aurkitzen da. Zalantzaz beteriko egunak igarotzen ari dira Ipar Irlandan, kezkarriak benetan hango egoera.

Zerk eragin du eta nola iritsi dira egoera honetara? Joan den astean bi unionista hil zituzten Ipar Irlandan eta Armada Errepublikanoari, IRARI leporatzen diotenez, Sin Feinni, haren adar politiko legez, elkarrizketan parte hartzea ukatu nahi diote. Britainia Handiko Gobernuak zuzenean egin du eskaera. Horrela gertatu zen, duela aste batzuk, UFF alderdiak hiru katoliko hil zituztean. Orduz geroztik mahaitik at daude hauek. Gertakari hauen guztien aurrean Sin Feinneke bake elkarrizketatik kanporatzearen aurka errekurtsoa aurkeztu du Dublingo epaitegian eta lerro hauek idazterakoan ez dugu epaiaren emaitza oraindik ezagutzen.

Askotan esan dugu, bake prozesua martxan jartzeak, ez duela garantizatzen gauzak erraz gartzen joango direnik. Oztopoz beterik egoten da bidea eta une honetan oztopo latzak dituzte Ipar Irlandan. Baina, beste prozesuei begiratu badiagu, guztietan ikusiko dugu horrelako uneak eta, askoz ere zailagoak eta gogorragoak, gainditu dituztela. Hala nola Hego Afrikan, El Salvadorren, Guatemalan eta juduen eta palestinarren artean zailtasunak dira nagusi, orain bertan. Baina aurrera egiten dute. *Zaila da prozesua, baina ez du esan nahi ezinezkoa denik*. Borondatea sendoa denean, une gogorragoak ere gainditzen dira. Horrela azaltzen zigen El Salvadorreko prozesuan parte hartu zuen FMLNren komandante batek: «Mahaian eserita hilabeteak generamatzan eta bombardaketak alde batetik eta erasoak bestetik; ekingiza hauekin elkarrizketaren porrotaren bila zebiltzan; baina hala eta guztiz ere, aurrera jarraitu genuen emaitza lortu arte, akordiora iritsi arte». Zentzu jatorra nagusituko ahal da Ipar Irlandan ere. Ez dugu gutxiagorik espero.

Kornerra

Mikel Elorza

Haurren nerbioak

■ Bihurrikeria egindako haurren nerbio gehiegizkoak salatu ohi du, mork salatu gabe bere errugabetasuna sutsuki defenditzeak. *Excusatio non petita, acusatio manifesta*, neure latin kaskarrean. Gertatzen zaie politikako haurrei ere. PP haserre dabil Eusko Legebiltzarrak presoen egoera Europako Kontseiluan salatzea erabaki duelako. HBri men egitea omen da. Ermuko Foroko Javier Elorrietak ere akatsa iritzi dio, eta funtsik gabekoa gainera, Espainian preso politikorik ez omen dago-eta.

Izaera politikoari buruzko eztabaidaz gain (erabaki politikoz daude sakabanatuta), normala da PP haserretzea, bera salatzen baitute terrorismoaren aurka bere kide direnek. Hori uler dezaket. Handik aurrerakoak, baina, *excusatio non petita* dira. Izan ere, zer salatutik ez baldin badago, lasai egon beharko luke PPK, salatzaileak gertatuko dira agerian. Europak deus egiten duenik ez dut konfiantzarik, baina haur batzuk behintzat nerbioz jarri dira.

L A P I h I T Z A

